

íkhasleen txokoa

URUMEA IKASTOLA



Hernani PUNK-a / II

Aitor Perez eta Iñigo Gorrotxategi



Literatura astea / III

Maite Villarrolain

Igor Elortza

Estibalitz Lion eta Eneritz Perez

Hernaniko

Larunbat gauak / IV

Rebeka Soroeta eta Maria Eizagirre

Bideo Jokua / IV

Josu Errazti



Egileak/ IV



Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

URUMEA IKASTOLA

Punk-a Hernanin

Hernanin badira punk talde batzuk eta guk aukera izan dugu beraietako batzuekin hitz egiteko. Baina hau aurkeztu aurretik Euskal Herriko punk taldeen garapen labur bat kontatuko dizuegu

AITOR PEREZ ETA IÑIGO GORROTXATEGI
Urumea ikastola

INGALATERRAN punk eztanda 77an gertatu zen arren, Euskal Herrian 80ko hamarkada hasieran lehertu zen mugimendua. Mugimendu hau ez zuen ontzat hartu izan orduko prentsak. Hauxe zioen, 1980an, *Renovación* aldizkari sozialistak: "Ingalate-



rratik exportatutako moda berri batek itsasoa zeharkatu du gazteriari burua jateko. *Punk* izatea txikia izatea da, zaborra, edo besterik gabe, makarra hutsa". Kiratsa darion prentsarik sentsazionalistenak produktu berri hau lau haizetara zabaldu zuen.

Garai hartako prentsak behin eta berriro tirokatu zituen punkiak. Dena den, jokaldia ez zitzaien ongi atera; izan ere, kritika garratz haiek jendeak bere pentsamendua berrestea lortu zuten.

Ordurako mobida zabaltzen hasia zen pixkanaka, eta zenbait jende arduratsu mugimendua aurrera atera nahian ibili zen.. Honela, 80ko hamarkada hasieran punk-a oso osasuntsu zegoen Euskal Herrian.

Lehen kontzertu haiek

Lehen kontzertuak benetan sinestezinak izan ziren. Mugimenduan ez zegoen jende askorik, baina zeudenek gogo izugarria

zuten inguruko panorama aspergarria suspertzeko. Aldi berean, mugimendu lokal txikiak sortzen hasi ziren Euskal Herriko zenbait tokitan: Errenteria, Arrasate, Aretxabaleta, Donostia, Eskoriatza, Gasteiz, Lasarte, Irun, Barakaldo, Zarautz, Bilbo, Ezker Ibarra...

Punka gertakari erabat berria zen, eta bertan gehienbat gazte jendea ari zenez, musikari dagokionez, esperientzia gutxi zegoen. Dena den, hamaika talde sortu zen, hasieran beren soinua definitzeko zegoen arren. Talde horietako batzuk izena hartzen hasi ziren: Rip, La Polla Records, Hertzainak, Basura, Odio, Eskorbuto, M.C.D, Cicatriz eta Vulpes... Beste hainbat taldek, berriz, lehen kontzertu haiek animatu zituzten, edota, besterik gabe, egun ero haietako proiektu soil izan ziren: Alarma, Doble Cero, Optalidon, Muñecas de Acero, Seccion Mortuoria, Cirrosis, Naska, Neo-punk, Colza, Ejercito de Salvacion, No, Indeseables, Pabellon Negro, Kaos, Sifilis, La Hijas de la Cloaca, Desorden, Desastre, Nacional 634, Tercera Generacion, Corrupcion, V-2, Tension, Kontuz-Hi, Ladillas...

Borroka latzak

Garai hartan oso disketxe gutxi zegoen Euskal Herrian, eta haie-tatik, bakar batek ere ez zuen interesik punk mugimenduan. Taldeek oso bitarteko gutxirekin (baina borondate handiz, hori bai) grabatutako maketak besterik ezin ziren eskuratu. Kontzertu grabazioak ere eskuz esku ibili ohi ziren. Hala ere, zenbait areto eta irratsaio zinta horiek jartzen hasi ziren, eta kantu batzuk *hit* txikiak bihurtu ziren punk koadrilaren artean.

Kronika hau askoz alaiagoa izan zitekeen. Baina, han eta hemen, *punk dibertigarria* (nolabait esatearren) egiten zuten tal-



deak sortu ziren. Erantzun bezala, talde batzuek kontrako norabidea hartu zuten, eta nagusiki "teddy" eta "popi" mobidetako jendea bihurtu zen haien erasoan jopuntu. Azkenean, borroka batatia izan zen *moderno* eta bes-telako lirdingatsuen kontra. Zergatik? Guzti haiek zaharkituztat eta konpromiso gutxiko jende aspergarritzat joak zirelako. Era berean, Madrildik zetorren guztiaren imitazaila handiustetzat jotzen ziren (Madrilgo *Nueva Ola* izeneko mobidak hemengo leku askotan ere eragina izan zuen).

Errenteriako Basura taldeko Beni abeslariak hauxe zioen auziari buruz 1983ko *Muskaria* aldizkarian: "benetako punk taldeei ate guztiak ixten zaizkie Espainian. Zerbait grabatzeko



dibertigarria izan behar duzu, eta txorakeriak abestu. Musika kalera ateratzea da benetan egin beharrekoa. Ikusten duzuna islatu ezazu zure musikan, eta ez dizute sekula ezer grabatuko. Guk, Basura-k, kaleko ildoan jarraitzen dugu, eta horregatik dugu hain aukera gutxi. Dena den, benetakoak izango gara, ez dugu *afterpunk* dei diezaguten utziko, Sinestro Total taldearekin gertatzen den bezala. Punk-a ez da dibertsioa; oldarkortasuna eta borroka baizik".

Non dago altxor hura?

Punkaren altxorra garai hura bizi izan zuen jendearen oroimenean dago, eta baita orduko fanzine eta aldizkarietan ere. Lehen aipatutako musika talde haien grabazio gutxi gorde da. Zerbait egon daiteke garai hartan irrati batzuek egindako programen zintetan... Horrez gain, musika talde haien topagune izandako aretoak nabarmendu beharko lirake: Errenteriako Apollo, Saioa eta Happy Day; Donostiako El huerto, Bilboko El Garaje... denak

desagertuta daude jada.

Prentsari dagokionez, 1980ko urtarrilean jaiotako *Muskaria* izan zen taldeak lagundu zituen aldizkari bakarra. Ez zegoen punk mugimenduz informatu nahi zuen beste aldizkaririk. Era berean, estatu espainiar mailako garai hartako aldizkariak, euskal taldeak albo batera uzten zituzten beti punk-az ari zirenean. Dena den, jendeak taldeei noranahi jarraitzen zien.

Uholde berria

1983-84an fanzine eta talde uholde berria sortu zen. Musika taldeen artean, gerora izen handia hartutako olatu berria jaiotako: Anti Regimen, Vomito Social, Kortatu, Baldin Bada, Bap, Ximorra, Eskoriatza, Vioch-R, Ultimatum, Porqueria T, Subversion... Taldeok bitarteko egokiagoak eta azpiegitura hobekak izan zituzten punk hazia ereiteko.

Honela, lehen diskoak grabatu ziren. Eskorbuto eta La Polla Records-en singleak izan ziren kaleratzen lehenak, 1983an. Urtebete beranduago, Rip eta Eskorbuto taldeen *Zona especial norte maxia* argitaratu zen. Kasu gehienetan, dena den, 80ko hamarkada hasierako punk talde erakusgarrienak ezer grabatu gabe geratu ziren. Azpimarratzekoa da, halaber, 1984-85era arte itxaron behar izan zela euskarazko lehen kantuak entzuteko. Izan ere, hasierako talde haiek gaztelaniaz abestu ohi zuten, sarri taldekide bat baino gehiago euskaldunak izan arren.

Eskorbuto taldeko Josuk hauxe zioen 1983an *Brigada Criminal* fanzinean egindako elkarrizketan: "Juanma eta biok jatorrizko eta benetako Eskorbuto gara. Gurea punk politikoa da, punk ustela, mugarik gabeko punka, gizartea deitutako urdanga horrek arbuiatzen duen punka. Gure etsai nagusia polizia da, eguneko hiru bat aldiz geratzen gaituzte, hori da batzuek bestekoa. Arazo asko ditugu, eta badakigu aurrerantzean askoz gehiago izango ditugula".

Eta horrela, gaur egunera arte. Izan ere, punkaren idealek bizirik dira, eta hasierako talde aitzindarietako batzuek gogor darraite hogeitau urte igaro ondoren. Honen adibide dira gure herrian ditugun punk taldeak, besteak beste: **(segidan)**

Nazka

Duela zenbat urte hasi zintan?
Lehengor urteko udaran.


Zergatik sartu zintan mundu honetan?
Aitzolek eta Mikelek hitz egin ondoren entsaio txiki bat egin zuten eta animoak handitu egin zitzaizkien. Ordutik, gero eta gehiago hasi ziran entsaiatzen eta gero eta gustu gehiagorekin aritzen dira orain arte.

Zein arazo izan dezute?
Gauzak leku batetik bestera eramateko ez daukagu autorik eta beti aritzen gera guraso edo lagunei auto eske. Horrela ezin degu jarraitu!

Zenbat kanta dituzue?
Sei: Nazkatuta, Tourneoa, Cruda de realidad, Kaleak, Sin titulo.

Zer moduz sentitzen zarete jendearen aurrean?
Oraindik urduritasuna nabaria da. Baina oso gustora aritzen gera.

Zein dezute zuen abesti gogokoena?
Aitzol: kaleak
Txusta: nazkatuta
Tobar: tourneoa.
Mikel: sin titulo.



Iñigo Rodriguez *Txusta*, ahotsa

Aitzol Zubeldia *Aitzol*, baxua

Gorka Tobar *Tobar*, bateria

Mikel Laburu *Laburu*, gitarra

Suburbio

Duela zenbat urte hasi zintan?
Duela bi urte eta erdi gutxi gora behera lokala eman ziguten eta horren ondorioz entsaiatzen hasi ginen.

Zer dela eta sartu zintan mundu honetan?
Musika gustatzen zaigulako eta lbaiek esan zuen bezala "musika ona egiteko gogoia dugulako".

Zenbat abesti dituzue zuenak?
Hamar, eta beraien izenak: Olokausto, Anarkia y birra fria, Suburbio, Betirako, Go home, Ero, I don't know why, Txakurra zaunka (bertsioa), Sistema dekadente, Eskupitajo.

Arazorik izan al dezute nozbaiten?
Interneteko faszista web orrialde batean *pro -ETA* kontzertuak egin genituela esan zuten. Nazkante hutsak dira.

Zer moduz sentitzen zarete jendearen aurrean?
Ondo, gustora, gogotsu eta beti gogo-



ekin gelditzen gera gehiago jotzeko. Beñatek esan zuen bezala.

Zein da zuen abesti gogokoena?
Go home.

Non jo zenuten lehenengo kontzertua?
Hernanin, Orkolagan, 2004ko abenduaren 19an. Zerriaren egunean.

Beñat Castrillo *Titou*, 20 urte 'baxua'

Ibai Arruarte *Gabai*, 18 urte 'gitarra'

Iban Zapiain *Zapi*, 18 urte 'bateria'

Mikel Aginagalde *Lutxo*, 19 urte 'ahotsa'

Literatura astea

AURTEN, urtero bezala, literatura astea ospatu dugu Urumea Ikastolan, martxoaren 27tik 31ra bitartean. Bertan DBHko guztiok hartu dugu parte, irakurri ditugun liburuei buruzko lanak eta horma-irudiak gure artean aurkeztuz. Honetaz gain, filmak ikusi ditugu. Astelehenean, *Muxu bat bakarrik* pelikula ikusi genuen 3. eta 4. mailakook Biterin, eta ostiralean, *School of Rock*. 2. mailakook *Errebelde baten egunero-koa* astelehenean, eta 4. *planta* ostegunean ikusi zuten. 1. mailakook asteartean *Spy Kid 2* eta asteazkenean *Mortadelo y Filemón*. Ikusten denez, filmak hiru hizkuntzetan ikusi genituen: euskaraz, gaztelera eta ingelesez.

Asteazkenean eta ostegunean erakusketa egin genuen, hau da,

guk eginiko lanak pasilloetan zehar jarrita zeudenez, hauek ikustera joan ginen. Ostiralean aste osoko ebaluazioa egin genuen.

Bestalde, bi idazle etorri zitzaizkigun ikastolara beraien liburuei aurkezteko, guk irakurri baititugu beraien idatzitako liburuei. Idazle hauek, Igor Elortza, *Margolana* liburuen idazlea eta Fernando Morillo, *Izar malkoak* liburuen idazlea dira. Guk, 3. mailakook, Igor Elortzaren liburua irakurri genuen, berarekin egon ginen eta galdera batzuk egiteko aukera ere izan genuen. Hemen dituzue Igor Elortzari eginiko galdera batzuk:

MAITE VILLARROLAIN
Urumea ikastola

IGOR ELORTZA - IDAZLE ETA BERTSOLARIA

«Ni orain dela 5-6 urtetik sentitzen naiz bertsolari. Idaztea afizio hutsa da niretzat»

Ikasleak: Idazlea edo bertsolaria zer sentitzen zara?

Igor Elortza: Idazletzat ez dut neure burua, afizio hutsa da niretzat, urte batzuk barru behar bada idazle sentituko naiz. Denbora dudanean idazten jartzen naiz, baina azkenaldi honetan ez dut denbora asko, beste hainbat gauzatan buru belarri bainabil. Ez dut ezer argitaratzeko asmorik, ideak, gogoia bai, baina denbora falta. Bertsolaritza munduan, berriz, gaztetatik nabil, baina, bertsolari izateko, ardura eta erantzunkizuna izan behar duzu. Ni orain dela 5 edo 6 urtetik sentitzen naiz bertsolari.

Azken finalean zer moduz? Zenbagarren geratu zinen?
Ondo sentitu nintzen, bosgarren gelditu nintzen.

Bertsolari bezala, zein izan zen zure momenturik hunkigarriena azken txapelketako finalean?

Urte honetako txapelketa oso berezia izan da. Barakaldon ospatu da leheneko aldiz, jende mordo, 13.000 pertsona, giro aparta, hunkigarria. Momenturik hunkigarriena sarrera izan zen, jende arteko pasillo batetik egin genuen sarrera, jendeak txalo artean hartu gintuen. Oso urduri sentitu nintzen, hazala dardarka.



Oholtzara iritsitakoan guk ere jendea txalotu genuen, oso hunkigarria.

Gaur egun zertan zabilta?

Batez ere bertsotan aritzen naiz. XX. Mendeko Bizkaiko bertsogintzaren historia liburua idazten ari naiz Amuriza eta Unai Iturriagarekin batera; Niko Etxarti buruzko liburuxka ere egiten ari naiz eta Wazemank-eko esketx batzuen gidoiak ere egiten ditut.

ESTIBALITZ LION ETA
ENERITZ PEREZ
Urumea ikastola

Hernaniko larunbat gauak

Azken aldi honetan, urtero bezala, Hernanin gauetan oso giro ona izaten da. Sagardotegi denboraldia dela-eta, jende asko ibiltzen baita Hernani inguruan.

Euskal Herriko hainbat lekutatik, oso arrunta bihurtu baita koadrilen artean autobus bat alokatu eta sagardotegietara etortzea. Baina ez dira bakarrik ingurukoak etortzen, Estatu espainiarretik ere jende asko etortzen da hemengo giroa ezagutu nahian.

Giro hau ez da sagardotegietan amaitzen. Afalondoren jendea Hernaniko tabernetara inguratzen da *festara*. Gauetan festa izaten den Hernaniko tabernen artean hauek aurki ditzakegu:

Gauetan festa non?

Gudarien plazatik hasita Kardaberaz kalean: Leoka taberna, Apeadero taberna, Ekos taberna, Tripontzi taberna, Aida taberna, Bodega taberna, Uru taberna,...

Plaza Berritik hasi eta Kale Nagusitik gorantz: Kixkal taberna, Garin taberna, Aralar taberna, Joxe Mari taberna,...

Tilosetan, berriz, Zintzarrri taberna daukagu.

Ikusten denez ez da tabernarik falta Hernanin.

Ze jende ibiltzen da

Arestian esan bezala, tabernariak lan asko izaten dute, baina etekin izugarriak ere izaten dituzte, diru pila irabazten baitute, batez ere orain, sagardotegi denboraldian. Garai honetan jendeak diru asko gastatzen du, gehienbat tabernetan. Gainera, kontsumitzeko dauden aukerak garestiak izaten dira eta dirua izatea beharrezkoa da. Bestalde, jende guztiak ez du diru kopuru berdina gastatzen, gastatzen den dirua gauza askoren arabera da. Normalean, zenbat eta zaharragoa izan, gero eta diru gehiago izaten da, lana egiten delako edota gurasoek ematen duten *paga* handitzen doalako urteetan zehar. Gazteagoak direnak,

aldiz, ez dute lanik egiten eta gehienetan diru gutxiago edukitzen dute, hau beti gertatzen ez den arren.

Diru kopurua adinaren arabera da eta gauetan kalean ibiltzeko duzun denbora ere bai. Horregatik guztiatik, tabernariak ez dituzte oso gazteak direnak nahi bezerotzat, zaharragoak baitira dirua daukatenak eta berandu arte gera daitezkeenak.

Amaitzeko esan, gu gazteak garen aldetik, gauez ibiltzea gogoko dugula eta ez litzatekeela gaizki egongo guretzat ere leku egokiak egotea, hau da, gure adina kontuan hartu eta honen arabera gauetarako ekintza edo leku edo zerbait antolatzea.

REBEKA SOROETA DIAZ ETA
MARIA EIZAGIRRE GARCIA
Urumea ikastola

❖ BIDEO JOKUA



'Death by Degrees' joku arrakastatsua

'TEKKEN' PlayStationerako borroka joku ezagun bat da. Nina Williams joku honetako jokalaria bat da eta joku honetatik bereizi egin da beste joku bat sortzeko, hau da, *Death by Degrees* joku sortzeko. Joku hau izena hartzen ari da, eza-guna egiten ari da, beraz, honen nondik-norakoak azalduko dizkizuegu.

Joku honetan CIAk Nina Williams espioi bezala kontratatu du Bermudetako itsasontzien desagertpenak ikertzeko. Jokalariaren trebetasunak azpilan terrorista bat argituko du, eta gainera, Ninaren ahizpari, Annari, buruzko egia lortuko du.

Abentura bi eszenatoki handitan gertatzen da: luxuzko kruzero batean eta irla batean. Borroka indarra hartzen joaten da jokuan zehar eta arma zuriak eta suzukoak erabiliko ditugu. Baina jokua ez da bakarrik borroka, labirinto itxurako eszenatokiak aurki ditzakegu eta mota guztietako puzzlei egin beharko diegu aurre jokuan aurrera egin nahi badugu. Garapen hau momentu batzuetan aldatu egiten da, horien artean errifle frankotizatzailea erabiltzen dugunean.

Baina bi akats aipagarri ditu. Lehenengoa kamarak dira. Kamarak finkoak dira eta batzuetan orientazioa gal dezakegu. Eta bestea, batzuetan jokuak erritmoa galtzea da, helburua oso zehaztugabea delako eta gelditu geratzen zara. Baina hori oso gutxitan gertatuko zaigu eta momentu horiek gainerako jokuak ahaztuarazten dizkizu. Ezaugarri hauengatik guztiengatik DBD gomendagarria da akzio pixka bat nahi duenarentzat.

JOSU ERRASTI
Urumea ikastola

Alearen egileak:



Maite Villarrolain, Amaia Zabaleta, Eneritz Perez, Estibalitz Lion, Josu Errasti, Aitor Perez, Iñigo Gorrotxategi, Maria Eizagirre, Rebeka Solera.